Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

42E/2018 Ebazpena, ekainaren 18koa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia” izeneko diru-laguntzaren 2018ko lehen ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA**:**	**Espedientearen kodea: 0011-1407-2017-000000**
UNITATE KUDEATZAILEA:	Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua Euskararen Sustapena eta Plangintza Euskara Sustatzeko Atala Tfnoa.: 848 426054 Helbidea: Yanguas y Miranda 27, 1.a - 31003 Iruña Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

EXPEDIENTE	
Espediente mota:	"Irabazi asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia"
Aplikatzeko araudia:	

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia onetsi zen otsailaren 23an, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariaren 5E/2018 Foru Aginduaren bitartez.

Ondoren, maiatzaren 9an, laguntzen deialdiko esleipenak ebatzi ziren Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako 25E/2018 ebazpenaren bidez.

5E/2018 Foru Aginduko 12. oinarriak xedatzen duen bezala, lehenengo ordainketa partziala bideratu nahi duten elkarteek 2018ko maiatzaren 25era arteko epea dute lehen seihilekoan egindako jarduera eta gastuen justifikazioa aurkezteko.

Horrenbestez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 129/2015 28 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. 1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak esleitzea:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Importe
0011-1407-2018-000015	G31921125	ASOCIACION GAREAN	G/B30002/4819/334100	4.017,50
0011-1407-2018-000020	G31513443	ASOCIACION GRUPO IRURTZUNGO AIZPEA	G/B30002/4819/334100	1.285,41
0011-1407-2018-000001	F31098627	NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA SCI	G/B30002/4819/334100	2.449,83
0011-1407-2018-000006	G31653017	KARRIKALUZE ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	18.930,51
0011-1407-2018-000007	G31572654	KARRIKIRI ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	19.969,82
0011-1407-2018-000008	G31824675	FEDERACION TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA	G/B30002/4819/334100	14.105,08
0011-1407-2018-000009	F95222816	EUSKARAZ KOOP E	G/B30002/4819/334100	6.896,77
0011-1407-2018-000013	G31698624	EUSKOKULTUR FUNDAZIOA	G/B30002/4819/334100	2.078,65
0011-1407-2018-000022	G31264153	NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	15.791,18

2. Ebazpen hau jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari, eta eranskin bat ere emanen zaio, lehen ordainketan jasotzeko kopurua eta bestelako xehetasunak azaltzeko.

3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahal dute jurisdikzio-ordena eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hau guztia Nafarroako Gobernuaren aitzinean aldez aurreko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legaren 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Iruñean, 2018ko ekainaren 18a.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Mikel Arregi Perez